

## 1.- IGEei BAIKARAREN gaineko informazioaren karpeta banatzea

Bileran parte hartzen duen IGE bakoitzak karpeta bat jasoko du, honako informazio honekin:

- IGEarentzako intereseko datuak biltzen dituen dokumentua (identifikazio datuak eta Elkarteen Erregistroko datuak, BAIKARAREN zerbitzuen erabilera eta harremanetarako datuak)
- BAIKARAK IGEei eskainzen dizkien zerbitzuen laburpena
- Ikasleen gurasoentzako 2014-2015 ikasturterako prestakuntza eskaintza
- IGEarentzako gizarte erantzukizuneko aseguruaren polizaren kopia
- 2013an Hezkuntza Sailari eskatutako diru-laguntzaren eskaeraren kopia (*baldin eta BAIKARAREN bidez izapidetu bada*).
- 2013an Hezkuntza Sailarengandik jasotako diru-laguntza justifikatzeko inprimakia, eskuz betetzekoa (*justifikazioa aurkezteko epea 2014ko abenduaren 10ean amaitzen da*).

## 2.- BAIKARA-IGEA-K-FAMILIAK Komunikazio Plana

BAIKARA FEDERAZIOAK sortu eta 2014-2015 ikasturtean abian jarri nahi duen Komunikazio Planari jarraituz, honako aldaketa hauek ezarriko dira urrian:

- BAIKARAK IGEei igortzen dien informazioa: IGEari jakinarazpen bat igortzeko premia sortzen zenean, mezu elektronikoa bat bidali ohi zitzaion orain arte, zegokion informazioaren artxiboak mezu horretan atxikita. Urritik aurrera, ordea, informazio buletin digital bat bidaliko zaie, IGE bakoitzak Federazioari emandako helbide elektronikora. Buletin horretan, BAIKARAREN webgunerako estekak sartuko dira, buletinean eskainitako informazioaren osagarri. Berez, hamabostean behin igorriko dira buletinak, baina baliteke unean uneko bestelako igorpenen bat egin behar izatea ere, premiazko informazioaren berri emateko.
- Webgunearen aldaketak: berriro diseinatu da webgunearen edukia, eta IGEen jardueren atala sendotu egin da, jarduera horien gaineko ezagutza zabalagoa izateko, harremanetarako bideen berri emateko, etab.
- Gizarte sareen erabilera sustatzea: Facebook, Twitter...

Aurreko ikasturteen IKTen erabilerari buruz egindako inkestaren emaitzak aztertuta, ondorioztatu da IGEek oso gutxi erabiltzen dituztela gizarte sare berriak (webgune propioa, Facebook, Twitter, etab.), eta familientzat nahiz IGEentzat sareen erabilera sustatzeko saioak antolatzeke aukera aztertzen ari da Federazioa.

Orobat aztertzen ari da erkidego guztiko eskola publikoko ikasleen gurasoei igortzeko buletin digital bat argitaratzeko aukera, irakaskuntza publikoarekin loturiko informazioa eskaintzeko. Buletin digital hori igortzeko, posta elektronikoa erabiliko litzateke, eta IGEen eta ikastetxeen lankidetzaren beharrik da, buletin digital hori jasotzeko aukeraren berri eman diezaieten familiei. Erkidego osorako buletin digitala argitaratzeko aukerarik ezean, Gipuzkoa osorako argitaratuko da.

### 3.- LOMCEri buruzko azken berriak

Koadro honetan bilduta dago 2014-2015 ikasturtean LOMCE ezartzeko aurreikusitako aplikazio egutegia, baita Euskadin izaten ari den aplikazioa ere.

#### 1.- Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailetan ezarri beharreko neurriak:

LOMCE ezartzeak dakartzan aldaketak	LOMCEn aurreikusitako aplikazioa	Euskadin duen aplikazio erreala
Etapak mailaka antolatzea	Bi mailako zikloak desagertzea.	Ez dago aldaketarik, etapak zikloka antolatuta jarraituko du.
Curriculumeko aldaketak eta testu liburuetako aldaketak.	Ikasgaiak enborreko ikasgai, ikasgai espezifiko eta erkidegoko ikasgai propietan bereiztea.	Ez da aplikatu. Orain arteko curriculumari eutsi zaio. <i>(Heziberri 2020 proiektua lantzen ari da)</i>
Ingurune naturalaren, sozialaren eta kulturalaren ezagutza arloa.	Bi ikasgaitan banatzen da; Naturaren Zientziak eta Gizarte Zientziak.	Ikasgai bakar gisa irakasten da, baina bi nota ematen dira ikasturte amaieran.
Erljioaren nahitaezko ordezkoko aukera.	Nahitaezko ordezkoko ikasgai berria: Balio Sozialak eta Hiritarrak.	Aplikatu da, baina ikasgaiaren edukia ez da Ministerioak onartutako berbera.
Lehen Hezkuntzako 3. mailaren amaierako ebaluazioa.	Hizkuntzan eta matematikan lortutako konpetentzia maila ezagutzea.	Oraindik ez dakigu egingo den, eta, egitekotan ere, barnera begirakoa litzateke.
Ebaluazio diagnostikoa, Lehen Hezkuntzako 4. mailan.	Ezabatua.	Proba diagnostikoa ikasturte honetan egiteko asmoa dago.

#### 2.- OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETako 1. maila ezartzea.

LOMCEren bidez, prestakuntza ziklo berri hau sortuko da, DBHko 3. maila eta, salbuespen gisa, 2. maila gainditu ez duten 15 urteko ikasleak ziklo horretara bideratzeko.

Euskadin ez da aplikatu, baina, horren ordezkari, "Prestakuntza Iragankor Integratua" programa ezarri da DBHko titulua eskuratu ez duten 16 eta 17 urteko ikasleentzat. Salbuespen modura, ikasleen eta gurasoen oniritzia jasota, 15 urteko ikasleek ere egin ahal izango dute programa hori, DBHko 2. maila amaitu eta 3. mailara igarotzeko moduan ez badaude eta DBHn behin errepikatu badute.

#### 3.- Ikastetxeen funtzionamendu demokratikoari dagozkion beste neurri batzuk.

LOMCEren aplikazioaren eraginez, 2014-2015 ikasturte honetatik aurrera, Eskola Kontseiluak (OOG) galdu egin ditu beren eskumen gehienak, eta aurrerantzean zuzendaritzaren esku geldituko dira eskumen horiek. Hala, Eskola Kontseilua-OOGa erabaki organoa izan ordez, kontsulta organoa izango da soilik.

Euskadin, ikasturte hasieran ikastetxeei igorritako jarraibideei erreparatzen badiegu, Eskola Kontseiluak eutsi egingo die bere eskumenei: Ikastetxearen Urteko Plana, Prestakuntza Plana, Eskola Orduz Kanpoko Jardueren eta Jarduera Osagarrien Programa, Urteko Kudeaketa Plana, Urteko Memoria, eskola ordutegia, ordutegi aldaketak, etab. onartzea.

Hezkuntza Sailak jakinarazi digunez, Eskola Kontseiluei buruzko arau bat onartzeko asmoa du, Kontseiluen gaur egungo eskumenei bere horretan eusteko.

*Gogorarazi nahi dugu oraindik indarrean dagoela ikastetxeetako Eskola Kontseiluek eskola publiko demokratikoaren defentsan atxikimendua emateko aurreko ikasturtearen amaieran hasitako kanpaina. Gipuzkoan, 60 atxikimendu jaso dira, eta Eskola Kontseiluan proposamenaren eztabaida orain arte egin ez duten ikastetxeetako IGEei dei egiten diegu ikasturte honen hasieran eztabaida egin eta atxikimendua Federazioa igor dezaten.*

## **4.- 2014-2015 IKASTURTERAKO LAN PLANGINTZA**

### **4.1 Eskualde bileren egutegia**

Iraileko bilerez gainera, 2014-2015 ikasturtean zehar beste bi eskualde bilera egingo dira, urtarrilean (22tik 29ra bitartean) eta maiatzean (11tik 18ra bitartean).

### **4.2 Ohiko Batzar Orokorra**

Beasainen egingo da, azaroaren 8an, larunbatean -bigarren deialdia, 10.30ean-, Beasaingo kiroldegiko instalazioetan.

BAIKARAREN Zuzendaritza Batzordea berritzea izango da Batzar Orokorreko puntuetako bat. Une honetan, zenbait postu daude hutsik, eta, hala, Federazioarekin harremanetan jartzeko deia egiten diegu Zuzendaritza Batzordean ordezkariaren bat izateko interesa duten IGEei.

## **5.- Eskola orduez kanpoko jardueretako eta eskola kiroleko begiraleen arazoa**

Uztailaren amaieran, Espainiako Gobernuak Enplegu Ministerioak eta Kirol Ministerioak txosten bat igorri zuten Diputatuen Kongresura, irabazi asmorik gabeko klub eta kirol elkarteetako langileen lan harremana lanaldi partzialeko kontratu bidez arautzeko proposatzen zuena. Txosten horretan adierazitakoa gauzatuz gero, ez da aukerarik izango, kirol elkarteekiko antzekotasunagatik, eskola kiroleko eta eskola orduez kanpoko beste jarduera batzuetako begiraleei tratamendu bereizia emateko, eta Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean sartzera behartuta egongo dira, baldin eta lan kontratua egiten bazaie. Azterlan horrek zabalik uzten du atea begirale horiek boluntario modura jardun dezaten, baina honako baldintza honekin: gastuen ordain gisa jasoko duten zenbatekoa dokumentu bidez justifikatuta egotea (bidaia gastuak, materialaren erosketak...).

Horrenbestez, IGEk bide bakarra izango dute eskola kiroleko eta eskola orduez kanpoko jardueretako begirale lanak egiten dituzten pertsonen egoera arautzeko: lan kontratua egitea, edo emandako zerbitzuak fakturen bidez kobratuko dituen enpresa bati zerbitzua eskatzea.

IGeen jardueren esparruan askotariko egoerak suertatzen direla kontuan hartuta, Federazioarekin harremanetan jartzea gomendatzen diegu IGEei, elkarrekin aztertzeko gai honi nola eman irtenbide egokiena.

## 6.- Eskola Kontseiluak-OOGak berritzeko hauteskundeak

Irailaren 15ean Eskola Kontseiluak-OOGak berritzeko hauteskundeak egiteko deialdia argitaratu zen, baina EHIGEek horrela eskatuta Hezkuntza Sailak jarritako prozesua indargabe utzi du. Hilabete batean gehienez jota (bataz beste 2014ko urriaren 16an), deialdi hau kudeatzeko Agindu berriak argitaratuko dira. Argitalpen-data berri horretatik kontatuko dira hautapen-prozesuak aurrera eramateko epe guztiak. Gutxi gora-behera hauek izango dira kontuan hartu beharreko data nagusiak:

- Hautagaiak onartzea: urriak erdi aldera
- Hauteskunde ekitaldiak: azaroak erdi aldera
- Eskola Kontseilua-OOGa eratzea: abenduan

Orokorrean kontuan euki behar diren gauzak hauek dira:

\* Aukeratu beharreko ordezkariak adina edo aukeratu beharreko ordezkariak baino hautagai gutxiago egonez gero, ez da beharrezkoa izango hauteskunde prozesua egitea, eta hautagai guztiak automatikoki izendatuko dira OOGko kide berri.

\* IGEak Eskola Kontseilurako ordezkari bat izendatzeko hauteskunde prozesurik ez da behar.

\* Garrantzizkoa da hauteskunde prozesuan ordezeko kideak ere izendatzea. Hala, kide titularren batek kargua utziz gero, ordezekoak beteko luke haren tokia, automatikoki. Ordezkorik ezean, kargua uzten duen aitaren/amaren postua hutsik geldituko litzateke hurrengo hauteskundeak egin arte.

## 7.- Intereseko beste gai batzuk